

SEXU LANA LANA DA ETA PUTENTZAKO LAN ESKUBIDE GUZTIAK NAHI DITUGU.

Ekainak 2
2026.

Mugimendu Feminista askotariko subjektuek osatzen dute. Horietako bakoitza posizio jakin batetik abiatzen da borrokara eta elkarrekin sistema sistema kapitalista heteropatriarkal arrazista eta kolonialistaren aurka borrokatzen dugu.

Zapalkuntza horiek borrokatzeko eta sistemaren aurka altxatzeko baditugu egun partekatutak agenda feministan. Beste egun batzuk, aldiz, subjektu espezifikoetako ahotsak eta aldarrikapenak erdigunera ekartzekoak izaten dira, ekainaren 2a, adibidez.

Bilgune Feministatik argi diogu, putak Mugimendu Feministan nahi ditugula eta puten eskubideen aldeko borrokarekin bat egitea ezinbestekoa dela. Agendan ezinbestean sartu beharreko eguna, beraz, gaurkoa.

Sexu-lanaren kriminalizazioak eta estigmatizazioak sexu-langileen kontrako ondorioak dakartza; poliziaren jazarpena, lege murriztaileak, migrazio-politika diskriminatzaileak, jendartearen mespretxua...

Mugimendu Feministan beraz, sexu-langileen ahotsak entzunarazi nahi ditugu, haien eskubideen aldeko borroka politikoa eta soziala aitortu nahi dugu eta jendartearen aurreiritzi eta estigmei aurre egiteko tresnak martxan jarri.

Ez ditugu puten kontrako ohio eta jarrerak onartuko asanblada eta manifestazioetan. Aliantzak eraikitzen jarraitzeko ardura hartzen dugu eta haien eskubideen defentsarekin bat egiten dugu.

Gora borroka feminista!

Gora langileon borroka!